

Bazkide garrantzitsuak: akatsa o tara

Gure enpresa aurrera eramateko, guretzako beharrezkoak izango dira bi bazkide hauek:

Gure kasuan, gure hornitzaileengan dependentzia handia dugu, ez badizkigute produktuak ematen ezingo dugu gure denda aurrera eraman. Beraz, multinazional dendekin negoziatuko genuke saldu ezin dituzten arropak prezio merkeagora erosteko, hau da, gure sektoreko dendekin (*“Zara”, “Pull&Bear”, “Bershka”...*) harremanetan jarriko gara gure arteko lankidetzak garatzeko, lankidetzak beti mantendu beharko dira, gure lehengaiak hortik bat datoz.

Bestalde, behar adina arropa lortuko ez bagenu aurretik jarritako bilketa guneeetatik lortuko genuke arropa, izan ere, arropa gureganatzeko hainbat baliabide edukiko ditugu kontuan. Lehenengo baliabidetik abiatuta gure inguruko herriko zein Euskal Herriko hirietan hainbat bilgune jarriko genituzke eta amaitzeko zenbait herrietako merkatuetan birmoldatutako arropa salduko dugu.

